

BALOREZKO PROPOSAMENA

Xabier Arrizabalaga, Negu Etxebeste, Unax Lanz, Eneritz Etxebeste eta Lide Romerok osatzen dugu taldea. Gazteentzako parke bat sortzeko asmotan gaude. Gaur egun gazteok libreki biltzeko eremu baten falta sumatzen dugu gure inguruan. Badira haurrentzako parkeak baita helduak biltzeko beste hainbat gune, baina espreski gazteoi zuzendutako eremu bat aurkitzea zaila egiten zaigu gaur egun, horregatik behar hori asetzeko proiektu hau burutu dugu. Gure parkearen berezitasuna honakoa da: leku bakarrean hainbat eremu izango ditu, bakoitza bere zaletasunen eta beharren arabera mugitu ahal izateko, hau da, momentu bakoitzean pertsona bakoitzak zein eremutan egon aukeratzeko eskubidea izango du beharren edo gogoaren baitan. Gure proiektuak ez du ideologia bat bizkarrean, Gazteparkearen helburua, orain arte ezagutzen ditugun kontrako, ideia politikoak baztertuz gazte orok eremu berean gozatzeko aukera izatea da. Gure ideiak zerbitzu horiek eskaintzeaz gain, gazteentzako aterpe bat eskaintzen du, denontzat aproposa eta inklusiboa da. Gainera, ideia berritzailea eta eramangarria da, izan ere, leku itxi batean, prezio jasangarri baten truke hainbat aukera eta ekintza osasuntsu eskaintzen ditu. Bestetik, gure parkeak taberna edo janari denda osasuntsu baten zerbitzua du, gazteen beharrak asetzeko eta leku apropos bat sortzeko. Eremu honen eskaintzarekin, gazteak neguan etxean geratzea amaituko litzateke eta harreman berriak egiteko aukera izango lukete. Gainera, eremu aske eta seguru batean mugituko lirateke gazteak eta beraien zaletasunekin disfrutatzeko aukera zabala eta askotarikoa izango luteke. Hori gutxi balitz, leku itxian egoteaz gain, hainbat egunetan, eremutik kanpo egiteko ekintzak eskainiko genituzke, beste hainbat lekutara joateko eta han ekintza desberdinak egin ahal izateko, gazte guztien interesak kontuan hartuta.

Bestalde, gure zerbitzua kontsumituko luteken gazteek, beti edukiko luteke gazteekin egoteko eremu bat eta ez lirateke baldintzatuak egongo eguraldia edota beste hainbat faktoreengatik. Gure parkera izenpetzen diren gazteek, egunero eremu horretan egoteko eta ekintza ezberdinez gozatzeko aukera izango luteke. Beraz, plan finko bat izango luteke beste planik ez duten kasuetan eta dibertsio seguru bat izango luteke. Honetarako, hurrengo alderdiak sustatuko lirateke:

Hasteko, ideia hau nobedade bat da, izan ere, gaur egun, gure inguruan ez dago horrelako zerbitzu zabal bat eskaintzen duen eta gazteentzat soilik zuzenduta dagoen parke edo eremurik.

Bestalde, anitza da, hau da, pertsona mota ezberdinek erabiltzeko eremua izango litzateke eta ekintza aldetik ere, makina bat gauza egiteko aukera egongo litzateke, leku itxietan edo kanpoan, oso mugituak edo esfortzu handirik eskatzen ez dutenak, etab.

Horrez gain, eremu itxi batean kokatuta egongo litzateke. Beraz, klimak laguntzen ez duenean ere, gustora egoteko aukera egongo litzateke. Hala ere, ekintza ezberdinak antolatuko genituzke, data seinalatuetan, irteera ezberdinak egiteko edo kanpora ibilaldiak egiteko. Ekintza mota ezberdinak izango lirateke, denen gustuetara egokitzeko.

Halaber, balio kualitatiboari dagokionez, eremuan bertan egongo lirateken altzariak edo materialak orain arte ezagutu ditugun parketatik ezberdinak izango lirateke eta guztiz berritzaileak gure inguruan.

Ildo beretik, balio kuantitatiboari dagokionez, eskainiko diren zerbitzuak kontuan hartuz, prezio onean eskainiko genuke gure zerbitzua, izan ere, kontuan izanda gazteok ez ditugula diru-sarrera handiak izaten, denontzat irigarria den prezioa mantenduko genuke. Gainera, gure proiektuan, izenpetze plan bat egon litzake, non, hilabetean diru kantitate bat ordainduz gero sarrera mugagabea izango luteke gazteek. Halaber, taldean izen emanaz gero, ere, deskontu batzuk egongo lirateke izenpetzerako orduan. Beraz, prezioak ere aldakorrak izango lirateke.

Azkenik, azpimarratu beharra dago, gure inguruan, orain arte, ez da antzeko zerbitzurik eskaini, beraz, orain guk eskainiko genukeenez ideia eta eremu hau, gazte askoren eskura jarriko genuke zerbitzu berritzaile hau, eta eskuragarri bilakatuko du.